

Maskulinitateak, berdintasuna eta kirola.

Kirola erreferente eta sozializazio-ardatz garrantzitsua da gizon eta mutiko askorentzat. Kirol-mundu tradizionala oso maskulinizatuta dago, eta ereduak, erreferenteak eta praktikak ikuspegi matxista tradizionalan oinarritzen dira askotan. Berdintasunaren aldeko aldaketa azpimarratzeko, beharrezkoa da gaur egun kirol-erakundeak entrenatzen eta antolatzen dituzten pertsonen prestakuntza ematea.

#MASKULINITATEAK



Prestakuntza
Aurreratua

MATRIKULA

Ikastaroaren data

MAIATZAREN 5TIK EKAINAREN 24RA

Matrikulazioaren data

HASIERA: MARTXOAK 17

BUKAERA: APIRILAK 20

35 orduko prestakuntza egiaztatua

Ikastaroaren hizkuntza EUSKARA

IRAKASLEA



Ametz Castrejana.

Gizarte-antropologoa eta Ikasketa Feministak eta Generokoetan doktoratu aurreko ikertzailea (UPV/ EHU).



Jabier Muñoz Moreno.

Genero Berdintasunaren Sustapeneko Goi Mailako Teknikaria.



Sergio Fuente.

Berdintasun Agentea (EHU-UPV).

Eman izena hemen

HELBURU OROKORRAK

- Kirolean eta eskola-kirolean berdintasunezko inguruneak eraiki beharraz kontzientziaztea.
- Kiroleko maskulinitateei eta haien jatorriari buruz hausnartzea.
- Norberaren eta besteen jokabide matxistak identifikatzea.
- Kirolean emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzen laguntzea.
- Kirola berdintasunez eta indarkeriarik gabe egiteko ereduak sustatu eta eskaintzea.
- Praktikarekin bat egiten duen kirol-esperientzia positiboa eskaintzea.
- Talde gehiago eta hobeto kohesionatuak lortzea.
- Diskriminazioa eta indarkeria ezabatzea, ekosistema propioa hobetuz.

UNITATE DIDAKTIKOAK

1. MODULUA

Sozializazio-prozesuak eta identitate maskulinoa: kritika, aldaketak eta erresistentziak.

2. MODULUA

Estereotipoak eta gizontasuna kirolean.

3. MODULUA

Aniztasuna eta diskriminazioak kirolean.

4. MODULUA

Kirol-lidergoa.

5. MODULUA

Hizkuntza eta sexismoa kirolean.

6. MODULUA

Jarduera onak, asertibitatea eta lankidetzak.

